

Murruak

Udako pausaldia aitzin bere azken iritzia ematean, Bea Salaberrik aipatu zuen Baigorri beharrak zirela “Antilletan bizi” deitu egunak, agorrilaren 11 eta 12an, Euskal Herriko Unibertsitate Herrikoia (EHUH) elkar-teak antolaturik, azpimarratuz kanpotiarrekilako trukaketek “birzentratzen” lagun gaitzaketela. Jardunaldietatik landa, horien nondik norakoaz gogoeta anitz baliteke egiteko. Zenbaitzuk soilik plazara ditzaket hemen.

Euskaldunon euskalduntasuna eta mundutartasunaren arteko korapiloak galdekatu nahiz, eta Édouard Glissant eta Patrick Chamoiseau martinikar filosofo ezagunen *Murruak erortzean: nortasun nazionala legez kanpo?* testutik abiatuz antolatu dira beraz eztabaidak honelako gonbidatuekin: J. Sarasua, I. Borda, L. Etchezaharreta, B. Axiari, N. Arbelbide, X. Aire, J. A. Urbeltz eta G. Yovan.

Ororen buru, iruditu zait bi ildotik aritu direla hizlariak: batzuk mintzatu dira ikuspegi poetiko batetik hizkuntzen edertasun berdinez, kulturen artean harreman baketsuak eraikitze beharraz, menderatzaile-menderatu etsaitasunetik at; beste batzuk oinarritu dira euskararen egoera kezkagarrian, azalduz premiatsuena dela gure hizkuntza gutxitua biziberritzeko aterabideak aurkitzea, geure barne indarretik, gure hibridotasunaz kontziente izanez eta kanpokoari irekiak egonez. Lehen postura biziki erakargarria zait: etengabeko borrokan ezin irauteko menturan, nahiko nuke nik ere goratasunez eta zuhurtzia lasaiaz gozatu bizi dugun hizkuntz eta kultur aniztasuna –hein batean, fantasma hori gauzatzen dut lanean, jatorri ezberdineko ikasle eta lankideekin, bai eta intimitatean ere, irakurketa nasaiekin bidez. Halere, bigarren postura gatazkatsura daukat isuria ene harreman sozialean, etxean eta etxetik kanpo, bihotzean



Katixa Dolhare-Zaldunbide

IDAZLEA



Antton Olariaga

errotutako beharra dudalako bizi dugun zuzengabekeriaren kontra ihardukitzea eta geurearen zaintzea, beste injustiziarik eragin gabe eta ahal bezain baikor iraunez. Hori desira eta errealtatea latzaren arteko auzi (murru?) minbera...

“Antilletan bizi” egun horiek interresgarriak izan dira ere ohartzeko guk euskaldunok gure nortasuna hizkuntzan sustraitzen dugun bezala, Martinikarrak Bèlè delakoan dutela egiten, hau da dantza, musika eta kreolerazko kantuak batzen dituen espresio artistikoa, baina gehiago ere, bizitza ikusteko manera berezia, hots, omen, martinikar arima bera. Parisko Lékol Bèlètik hogeitabat martinikar jinak ziren Baigorri “Moman Bèlè” edo Bèlè une baten partekatzeratokiko jendearekin.

Haiekin iragan azken gaualdiaren amaieran, taldeko *tanbouyé* edo atabal joilea elekatzen gertatu naiz. Bere ibilbidea honela kontatu dit: “Badakizu, Martinikatik joan naizelarik lan xerka Parisera, duela 15 urte, sentitu dut ene baitan ene nortasuna berreskuratzeko eta elikatzeko beharra. Bèlè eskolan ibili nintzen, eta orain Bèlè praktikatzaile gisa definitzen dut ene martinikar nortasuna. Lantokiko pasabideetan trebatu ditut dantza urratsak eta ene lankideekin –horiek ni bezala martinikarrak direla eta– kreolera funtsez berrikasi dut”. Eta nik, inuxent: “Eta zertan ari zira lanean?”. “Zaindari naiz presondegi batean”. Ene harriduran, berehala irudikatu nuen mutiko irritsu eta alai hori espetxearen murruekin alde batetik, bere nortasuna birbiziarazteko ahaleginak egiten, pasabideetan dantzan eta lankideekin kreoleraz tira-ahala mintzo, eta murruekin bestaldetik euskal presoren bat, baigorriarra edo hurbilekoa izan zitekeena, euskara lantzen ari EGA pasatzeko... “Murruak eror bitez”, diote Édouard Glissant eta Patrick Chamoiseau. ■